



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

GRADU AMAIERAKO LANA

KAZETARITZA GRADUA / 2021-2022 IKASTURTEA

MEMORIA

“Drag”-aren hegalen atzean

EGILEA: Iñaki Rubio Mendoza

ZUZENDARIA: Imanol Murua Uria

Leioa, 2022ko irailaren 8a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Ideiaren jatorria	4
3. Lanaren interesa	5
4. Helburuak	5
5. Metodologia	6
5.1. Informazio bilaketa	6
5.2. Erabilitako iturriak	7
5.2.1. Iturri pertsonalak	7
5.2.2. Iturri dokumentalak	9
5.3. Edukiaren antolaketa eta idazketa	10
6. Zailtasunak	11
7. Ondorioak	12
8. Bibliografia	13

1. Sarrera

Drag-a fenomeno *mainstream*-a bilakatu da azken urteetan, eta inoiz baino ikusgarritasun gehiago lortu du, besteak beste, RuPal's Drag Race *reality*-ari esker. Halaber, geroz eta transbertsalagoa ari da izaten; jada ez da bazterrean zokoraturik dagoen artea, eta horrek anitzagoa bilakatu du.

Egungo egoerara iristeko, ordea, bide luze eta aztoratua egin behar izan dute *drag*-ean dihardutenek, ez baita dena arrosa kolorekoa izan. Jazarpena, diskriminazioa eta irainak jasan behar izan dituzte, urte askoan klandestinitatera ezinbestean kondenatuz.

Ereriz ikasi dute oinez, eta diziplinak dituen 100 urte baino gehiagotan eboluzio handia izan du, hamaika aldaera sorraraziz. Euskal Herrian ere bere bidea egin dute trabestiek, eta *drag* berezi eta bakarra sortu dute, La Otxoa bezalako transformista aitzindarietatik hasirik, belaunaldi gazteenetara.

2. Ideiaren jatorria

GRALean pentsatze hutsak kikildu izan nau beti, eta data hurbildu ahala beldurrak areagotu ziren nire baitan. Are gehiago proiektua Mexikon hasi behar nuela jakitean, mugikortasun programa batean bainengoen. Dena den, argi nuen erreportaje sakona edota erredakzio lan bat aukeratuko nuela, erosoan sentitzen naizen kazetaritza jarduera baita.

Gaia aukeratzekoan zalantzak izan nituen hasieran, ez bainekien erraztasunetik jo ala gustatzen zitzaidan gai bat aukeratu. Hortaz, nire aburuz gai errazak ziren horiek zerrendatu nituen, eta berdina egin idaztea gustatuko litzaidakeen horiekin. Azkenean, zerrenda luze bat egin nuen, gai ezberdinak aukeratuz lehenengo, eta horiek zehaztuko zituzten azpigaiak idatziz ondoren.

Azkenean, atsegin nituen horiek finalera pasa ziren, eta horietako bati buruz idatziko nuela erabaki nuen. Gehienak LGTBQ+ kolektiboari loturikoak ziren, *drag*-a horien artean.

3. Lanaren interesa

LGTBIQ+ kolektiboaren parte naizen aldetik, betidanik gustatu izan zaizkit horren kultura eta nondik norakoak, eta horrek bultzatu ninduen *drag*-a aukeratzeko azken pausua ematera. Kontziente nintzen ez zela bat ere erraza izango, gaiaren inguruan informazio eta dokumentazio eskasa dagoelako batik bat, are gutxiago Euskal Herrian.

Banuen ideia orokorra, baina gehiago zehaztea falta zitzaidan. Egungo *Drag*-ari buruz hitz egitea eskasa iruditu zitzaidan, eta historia gogoko dudanez, diziplinaren eboluzio historikoa egitea pentsatu nuen, mami gehiago izango nuelakoan. Gainera, fenomeno globalek Euskal Herrian duten eragina eta ibilbidea aztertzea ere atsegin dut, iaz erreporterismo ikasgaiaren egindako erreportajearen HIESaren krisiarekin egin nuen bezala. Beraz, Euskal Herriko *drag*-ari buruz hitz egitea oso interesgarria iruditu zitzaidan.

4. Helburuak

Erreportajearen helburu nagusia euskal *drag* eszenari omenaldi bat egitea eta ikusgarritasuna ematea da. Historikoki zokoraturik egon den artea da; LGTBIQ+ kulturari loturikoa denez era askotako biolentzia jasan dute artistek, eta horien historia kontatzea asko zaildu du horrek ondorioz.

Gizartea kontzientziaztea eta artea ohiko espazioetatik at ateratzea dira beste helburu garrantzitsuetako batzuk. Izan ere, desinformazio eta estigma handia dago oraindik ere *drag*-aren eta artisten inguruan, eta horrek LGTBIQ+ espazioetara mugatzen du diziplina, haratago joan ezinean.

Halaber, *drag* belaunaldi ezberdinei ahotsa eman nahi izan diet, diziplinak izan dituen aldaketak eta eboluzioa lehen pertsonan kontatzeko, baita kontakizun historikoa burutzeko ere.

Baita ere, ofizioa den aldetik, lanbidearen duintasuna erakustea izan da beste helburuetako bat, mespretxu handiz tratatuak izan baitira denbora askoan, lan

baldintza penagarriak edukiz halabeharrez. Egun, egoera asko aldatu den arren, beharrezkoa da beren presentzia eta eskubideak aldarrikatzea.

5. Metodologia

Mexikon hasi nuen proiektua, azaroa aldera, eta bederatzi hilabetez aritu naiz lanean. Ez nuen bide-orri zehatzik aukeratu hasieran, eta gaia zehaztearekin ekin nion proiektuari. Hiru urrats nagusitan banatu dut erreportajearen metodologia.

5.1. Informazio bilaketa

Gradu Amaierako Lana urrian esleitu zidaten, eta hilabete batean aukeratu nuen gaia. Ondoren, proiektua idatzi nuen, senak esaten zidana jarraituz. Konturatu nintzen informazio gutxi zegoela gaiaren inguruan, Euskal Herrian bereziki, eta istorio pertsonaletan oinarrituko nuela erreportajea erabaki nuen, kutsu pertsonalago bat ematearren bide batez.

Bertan, erreportajearen gaia, informazioa biltzeko bideak, testuaren idazketa eta egitura eta zatidura nagusiak zeintzuk izango ziren zehaztu nuen. Gaiaren ikuspegia ezarri, eta euskal *drag* mugimenduaren hastapenak eta bilakaera aztertuko nituela erabaki nuen. Halaber, balizko elkarrizketatuak bilatzen hasi nintzen. Zerrenda probisional bat idatzi nuen, *drag* errege-erreginez eta kolektibo ezberdinetako iturri bozeramaileez osaturikoa oro har.

Hasierako plangintzak hamaika aldaketa izan ditu denboran zehar, bistakoa denez. Proiektuaren txostenean ageri diren iturri asko ez ditut erabili azkenean, eta bertan ageri ez ziren beste hainbeste sartu ditut. Orobat, iturri dokumentalak zeintzuk izan zitezkeen hasi nintzen pentsatzen, zer bilatu oso argi ez banuen ere.

Behin erreportajearen ideia orokorra zehaztuta, informazio zehatza bilatzeari ekin nion. Bizitzaren gorabeheren kariatz, otsailean hasi nintzen buru-belarri. Lehen elkarrizketarekin kontaktuan jarri eta dokumentazioa biltzen hasi nintzen.

Landa lana ere oso metodo baliagarria izan da informazioa lortzerakoan, eta batez ere erreportajearen zehar giroa eta ingurunea deskribatzeko, oso garrantzitsuak baitira *drag*-ari buruzkoak kontatzerakoan. Erreportajearen gaia kontuan harturik, ezinbestekoa da *drag* ikuskizunetara hurbiltzea eta artisten ingurua ezagutzea, ahalik eta informazio zehatz eta osoa emate aldera.

Hamaika ikuskizunetan egon naiz, behatzen eta ikertzen. Halaber, aretoen hegalen atzean ere izan naiz, transformazio prozesua bertatik bertara ikusiz. Horregatik eman diot izenburu hori erreportajeari, *backstage*-ean sortzen baita magia.

5.2. Erabilitako iturriak

Hasiera-hasieratik argi nuen iturri pertsonalei emango niela garrantzia, artista bakoitzaren sentipenetatik ateratako lan bat egin nahi nuelako. Beraien bizipenen testigu zuzena izatea nahi nuen. Hala ere, erreportajea osatzeko eta gaia denboran zehar kokatzeko hainbat iturri dokumental erabili ditut.

5.2.1. Iturri pertsonalak

Osozara, 11 iturri pertsonal erabili ditut erreportajea egiteko. Jarraian beren izen-azizenak, izen artistikoak eta bakoitzaren deskribapen laburra egin dut.

- **Donatella Maní / Miguel Biurrun.** *Drag Queen*-a da eta 23 urte ditu. Elkarrizketatu gazteena bada ere, bere alter-egoak lehenaldia irudikatzen du. Landa eremuko LGTBQ+ komunitatea aldarrikatzea da bere helburu nagusienetako bat, Nafarroako herri txiki batean bizi baita, eta 60ko hamarkadako emakume baten itxura hartzen du oholtza gainera igotzen denean. Elkarrizketa 2022ko apirilaren 16an egin nion, Bilbon.
- **Albina Stardust / Eneko Garcia.** Burlatako (Nafarroa) *Drag Erregina* da, euskal Lady Gaga bezala ere ezaguna dena. Pop izar baten itxura hartzen du bere *drag*-ak, eta euskara darabil ikuskizunetan, hizkuntza

horren eta artearen bateragarritasuna aldarrikatuz. Elkarrizketa 2022ko apirilaren 6an egin nion, Iruñean.

- **Asier Bilbao.** 52 urteko transformista da, eta Bilbo hiriko artista esanguratsuenetakoa da diziplinaren baitan. Oso gaztea zenetik darama arteari loturik, eta Bilboko *Key* lokal mitikoan aritu da ordutik ikuskizunak eskaintzen. Bere kasuan, bataio-izena darabil transformatzen denean ere, bera baita uneoro. Elkarrizketa 2022ko martxoaren 18an egin nion, Bilbon.
- **Mykel Nuts.** Jardunean dagoen *drag king* bakarra da Euskal Herrian. 29 urte ditu, donostiarra da, eta kasualidadez murgildu zen artean, nahiz eta beti sentitu duen bertan aritzeko deia. Familia kontserbadore batean jaio zen, eta arazoak saihestearren nahiago du bere izena ez esan. Elkarrizketa 2022ko apirilaren 13an egin nion, Donostian.
- **Yogurina Borova / Eduardo Gaviña.** Eskola zaharreko *drag*-ean hasi bazen ere, proposamen berritzaileak dakartza artistak. Betidanik azaldu du euskararekiko konpromiso sendoa, eta aitzindaria da euskal hizkuntza eta transformismoa uztartzen. Gainera, haurrentzako ikuskizunak egin dituen munduko lehen trabestia dela dio, harentzat ezinbestekoa baita errespetua eta berdintasuna zabaltzea gazteenen artean. 52 urte ditu eta Laudion (Araba) jaio zen. Elkarrizketa 2022ko martxoaren 14an egin nion, Bilbon.
- **La Otxoa / Jose Antonio Niefla.** Euskal Herriko lehen transformistatzat hartzen dute askok. 74 urte ditu, eta Bilboko San Frantzisko auzoan jaio zen, Frankoren diktadura betean. Gaztea zelarikartzelara alde egin zuen, bere identitatea askatasunean bizitzeko asmoz. Bertan, garaiko transformista ospetsuenak ezagutu zituen, eta haiengandik edan zuen bere pertsonaia sortzeko. LGTBIQ+ kolektiboko pertsona askoren bidea urratu zuen, eta Euskal Herriko askatasun sexualaren sinboloa da. Elkarrizketa 2022ko maiatzaren 4an egin nion, Bilbon.

- **Maruxak / Esteban Ardanaz eta Joseba de Miguel.** 25 eta 32 urte dituzte, eta DJ gisa hasi baziren ere, aise deitu zien atentziora *drag*-ak. Beren helburu nagusia da trabestismoa ohikoa ez den lekuetara eramatea, transbertsalagoa egitea finean. Hori gutxi ez, euskal folklorea nortasun-zeinua da horientzat, eta beren estetika horretan oinarritzen da, *txoni* estiloarekin uztartuz. Elkarrizketa 2022ko apirilaren 10ean egin nien, Iruñean.
- **Oskar Delgado / Las Fellini.** Caprichossi Potxperta, Jeyxi Spaguetti, eta Barbara Kaldorekin batera aritu izan da Nagore Gore harat-honat, ia 25 urtez. Laukotea erreferentea da *drag* munduan, Bilbo aldean bereziki. Beren ikuskizun eta ezaugarri bereziek izen ona eman die, eta bakarrak dira egiten dutenean. Genero bitartasuna alde batera utzi dute, eta *trash* estetika da euren bandera. 51 urte ditu Oskarrek. Elkarrizketa 2022ko martxoaren 21ean egin nion, Bilbon.
- **Mikel Martin.** EHGAM Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduko kide da ia sorreratik, eta Francisen heriotza bertatik bertara jarraitu zuen. Elkarrizketa 2022ko ekainaren 30ean egin nion, telefonoz.
- **Mikel Martinez.** *Drag* ikuskizunen zale amorratua da, eta ederki asko ezagutzen du mundu hori. Elkarrizketa 2022ko maiatzaren 20an egin nion, Altsasun.

5.2.2. Iturri dokumentalak

Azkenean, uste baino iturri dokumental gehiago aurkitu ditut. Pertsonen testigantzak ez zidan informazio guztia emango, eta kontakizunari osotasuna emateko artikulua akademiko, tesi, eta artikulua askoren laguntza izan dut, besteak beste.

Iturri dokumental gehienak informazio orokorreko hedabideetako artikulua dira. *Berria*, *El País*, *El Correo*, *Diario Vasco* eta *Diario de Noticias* izan dira kontsultatu ditudan hedabide nagusiak, gaia Euskal Herrian kokaturik dagoenez, bertako hedabideak ikertzea eskatzen baitu. Halaz ere, baliagarrienak egin zaizkidan artikulua *Las siete vidas del drag* eta *La Barcelona drag queen remonta el vuelo* izan dira, *El País* egunkariarenak, erreportajearen egitura orokorra hartzen lagungarriak izan baitira.

Artikulu akademikoak zein tesi eta txostenak ere lagungarriak izan zaizkit, batez ere erreportajearen aspektu teorikoagoak azaltzerako orduan. Maria Arambarriren *Prácticas artísticas queer en Euskal Herria. Los principios de Feministadia (2006-2010)* Gradu Amaierako Lana bereziki interesgarria izan da. *Queer* arteari buruzko lanak ez dira oparoak Euskal Herrian, eta *drag*-a horren baitako diziplina denez lagungarria egin zitzaidan gaia kokatzerakoan, baita gai teorikoak jorratzerakoan ere.

Liburuak ere garrantzitsuak izan dira, esaterako Valeria Vegasen *Liberate: La cultura LGTBQ que abrió camino en España*, kolektiboari loturiko ehunka artista, pertsona garrantzitsu, eta dokumentu agertzen baitira bertan. ETB1eko Ur Handitan saioak egindako *Harro gaude*, Francis dokumentalak ere datu asko eman dizkit gaiaren inguruan, eta, noski, Vicente Vadillo Francis-en heriotzari buruzko zatidura egiteko ere bai.

5.3. Edukiaren antolaketa eta idazketa

Lehenengoz gaia enfokatu nuen. Argi neukan *drag* ezberdinen testigantza baliatuz Euskal Herriko *drag* eszena bildu nahi nuela, belaunaldi ezberdinetako artistak kontuan hartuz. Horietako batzuk ezagutzen nituen, sare sozialetatik eta baita pertsonalki ere, eta beste batzuk ez nituen ezagutzen. Elkarrizketen mamiak bi alde nagusi zituen: alde batetik, *drag*-arekiko ikuspuntu eta bizipen pertsonalak, eta bestetik, historian zehar diziplinak izan duen eboluzio, baldintza, eta egoerei buruzko galderak.

Elkarrizketa gehienak martxoa eta maiatza bitartean egin nituen, eta banan-banan transkribatu. Ordea, elkarrizketak egin ahala, oraindik ez nuen testua egituratuko zuen irizpide edota ideia argirik. Agerikoa zen bi adar nagusi zituela erreportajeak, pertsonala eta historikoa, eta Imanol Murua tutoreari galdetu nion ea zer egin nezakeen. Bi bloke nagusitan banatu nezakeela esan zidan, ohikoegia ez bada ere.

Eta hala egin nuen. Lehenengo blokeak, *drag* izateari buruz hitz egiten du, norberaren bizipenak oinarri harturik, eta bigarrenak bilakaera historikoa eta erronkei buruz. Bloke bakoitza tarteki ezberdinez osaturik dago halaber. Zatidurak nahiko argi izan nituen hasieratik. Hiru dira. Lehenak Vicente Badillo Francisen erailketari buruzkoak azaltzen ditu eta, bigarrenak, Drag Race frankiziak elikatzen dituen estereotipoei buruzkoak. Azkenak, gaia ulertzeko ezinbestekoak diren termino eta hitzak azaltzen ditu, hiztegi formatuan. Orobat, eskema nagusi bat egin nuen, aipu eta informazio guztiak hari narratiboaren arabera ordenatuz. Aholku hori ere Imanol Muruak eman zidan. Halaz ere, erreportaje osoa biribildu duen izenburu eta sarrera orokor bat idatzi nuen azkenean, bloke guztiak josiko dituen.

6. Zailtasunak

Zailtasunak izan dira erreportaje honen protagonista, halaz ere, gaia asko gustatzen zait eta disfrutatu dut egiten. Pixkanaka joan naiz ehuntzen, nire erritmoan, eta azkenean harro nago egindakoaz.

Mexikon izan nuen istripua izan da oztopo nagusia. Horrek asko atzeratu zuen proiektua, eta hala-hola osatu arte ez nion lanari ekin, mugikortasun mugatua bainuen. Mugikortasun arazoak elkarrizketak egiteko epea atzeratu zuen bereziki. Zenbait elkarrizketatu lortzea ere oso zaila izan da, La Otxoa kasu, baina kostata izan bada ere lortu nuen hitzordua.

Baina bereziki zaila izan dena erreportajearen egitura ezartzea da. Hasieratik baneukan ideia bat nondik joko zuen erreportajeak, baina eskema bat egiterakoan ezinezkoa egiten zitzaidan artisten nortasunaren eta ibilbide historikoaren blokeak uztartuko zituen egitura koherente bat aurkitzea. Azkenean Imanol Muruari esker lortu nuen. Halaber, gai horiek hain hedadura luzean lantzen dituzten lanak oso gutxi dira, eta Euskal

Herrian esango nuke ez dagoela antzekorik, eta zerotik hastea bezalakoa izan da nolabait.

Gaiaren gertutasunak ere buruhausteak eman dizkit. Lana hain ondo egin nahi izateak blokeo egoera anitz sorrarazi dizkit baita ere, eta ez aurrera ez atzera egon izan naiz askotan. Presio moduko bat sentitu izan dut alde horretatik.

7. Ondorioak

Hortaz, asko ikasi dut proiektuak iraun dituen bederatzi hilabete hauetan. Alde batetik, *drag*-ari buruz mordoak ikasi dut, baita berau ulertzen ere. Ikasgai pertsonalak izan dira gehien bete nautenak, elkarrizketatuarekin izandako kontaktuak hain zuzen ere. Umiltasun lezio bat eman didate, eta asko irakatsi didate beren bizipenek. Ganera, *drag* errealitate ezberdinak ezagutu ditut, eta oso aberatsa izan da hori.

Landa lana izan da, noski, GRALaren zatirik politena. Transformismoan murgildu naiz osorik, eta hamaika leku eta pertsona ezagutu ditut hilabete horietan. Historia aldetik ere asko ikasi dut, izan ere, lana egin aurretik ez nekien nondik zetorren *drag*-a, eta ez nekizkien erreportajeen azaltzen diren diziplinaren nondik norako berezi horiek.

Kazetaritza jardunaren aldetik ere asko ikasi dut. Izan ere, sekula ez dut egin halako lan luzerik, eta zaila izan den arren, pena merezi izan du guztiz. Dokumentazio lana antolatzen, elkarrizketa sakonak egiten, idazkera lantzen... sakonago ikasi dut, eta karreraren ikasitako guztia praktikan jartzea erronka polita izan da.

Inoiz ez dut hainbeste dokumentazio antolatu behar izan, eta elkarrizketetan pertsona barruagotik ezagutzea ere ederra izan da. Gainera, gaiari dagokion idazkera berezia lantzeak probatu egin nau; ez nekien gai izango ote nintzen artea idazkeraren bidez transmititzeko, baina, azkenean, uste dut lortu dudala.

8. Bibliografia

- F. Cadenas, Julia** (2021). “Las siete vidas del *drag*”. *elpais.com*. Maiatzaren 9a, eskuragarri hemen: <https://elpais.com/espana/madrid/2021-05-09/las-siete-vidas-del-drag.html> [Kontsulta eguna: 2022/05/05]
- Orquín, Carlos** (2021). “La Barcelona *drag queen* remonta el vuelo”. *elpais.com*. Abuztuaren 15a, eskuragarri hemen: <https://elpais.com/espana/catalunya/2021-08-15/la-barcelona-drag-queen-remonta-el-vuelo.html> [Kontsulta eguna: 2022/05/05]
- Cavestany, Juan** (1994). “*Gay Power* nació hace 25 años en Stonewall”. *elpais.com*. Ekainaren 27a, eskuragarri hemen: https://elpais.com/diario/1994/06/27/sociedad/772668011_850215.html [Kontsulta eguna: 2022/05/10]
- Tur, Francesc** (2020). “EL TRANSFORMISMO EN LA ESPAÑA DE ALFONSO XIII (1900-1931)”. *serhistorico.net*. Apirilaren 22a, eskuragarri hemen: <https://serhistorico.net/2020/04/22/el-transformismo-en-la-espana-de-alfonso-xiii-1900-1931/> [Kontsulta eguna: 2022/04/25]
- Morales, Grace** (2018). “El arte del transformismo español a través de sus grandes figuras”. *elsaltodiario.com*. Urriaren 21a, eskuragarri hemen: <https://www.elsaltodiario.com/creaciones-morales/el-arte-del-transformismo-espanol-a-traves-de-sus-grandes-figuras> [Kontsulta eguna: 2022/04/25]
- Tubia, Iker** (2021). “*Drag-a* karrikan da”. *berria.eus*. Maitzaren 3a, eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/albisteak/197048/drag-a-karrikan-da.htm> [Kontsulta eguna: 2022/02/02]
- Nguyen, Nikki** (2022). “*Drag Race Sweden* Is coming to WOW Presents Plus”. *worldofwonder.net*. Apirilaren 5a, eskuragarri hemen: <https://worldofwonder.net/drag-race-sweden-is-coming-to-wow-presents-plus/> [Kontsulta eguna: 2022/03/15]
- Aitkenhead, Decca** (2018). “RuPaul: *Drag is a big f-you to male-dominated culture*”. *theguardian.com*. Martxoaren 3a, eskuragarri hemen: <https://www.theguardian.com/tv-and-radio/2018/mar/03/rupaul-drag-race-big-f-you-to-male-dominated-culture> [Kontsulta eguna: 2022/03/15]

Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua (1979). “Sozial arriskutasun legearen erreforma eta Martin Villak ukatutako FAGCen legeztatena”. *Gay Hotsa*, 3, 1-2.

García, Luis (2019). “Un poco de historia: ¿Cuál es el origen del drag?”.

homosensual.com. Martxoaren 5a, eskuragarri hemen:

<https://www.homosensual.com/cultura/historia/un-poco-de-historia-cual-es-el-origen-del-drag/> [Kontsulta eguna: 2022/04/08]

Preciado, Beatriz (2012). “*Queer*: historia de una palabra por Beatriz Preciado”.

lasdisidentes.com. Abuztuaren 21a, eskuragarri hemen:

<https://lasdisidentes.com/2012/08/21/queer-historia-de-una-palabra-por-beatriz-preciado/> [Kontsulta eguna: 2022/03/20]

Palmer, Manu (2016). “¿Cómo está evolucionando la escena *drag* en España?”. *i-*

d.vice.com. Maiatzaren 31, eskuragarri hemen: <https://i->

[d.vice.com/es/article/wjn5eq/escena-drag-en-espana](https://i-d.vice.com/es/article/wjn5eq/escena-drag-en-espana) [Kontsulta eguna: 2022/04/08]

F.Aparicio, Enrique (2021). “Así es realmente ser drag queen en España: Pakita,

Ferrxn, Nagore Gore y Sharonne nos cuentan su historia”. *yasss.es*. Irailaren 19a,

eskuragarri hemen: [https://www.yasss.es/cultura/drag-queen-en-espana-pakita-ferrxn-](https://www.yasss.es/cultura/drag-queen-en-espana-pakita-ferrxn-nagore-gore-sharonne_18_3199623075.html)

[nagore-gore-sharonne_18_3199623075.html](https://www.yasss.es/cultura/drag-queen-en-espana-pakita-ferrxn-nagore-gore-sharonne_18_3199623075.html) [Kontsulta eguna: 2022/04/08]

Segovia, Marina (2022). “¿Qué diferencia hay entre *drag queen* y travesti?”. *rtve.es*.

Martxoaren 15a, eskuragarri hemen: [https://www.rtve.es/television/20220315/orgullo-](https://www.rtve.es/television/20220315/orgullo-gay-lgbt-drag-queen-origen-diferencias-transformismo-travesti-valeria-vegas/2107203.shtml)

[gay-lgbt-drag-queen-origen-diferencias-transformismo-travesti-valeria-](https://www.rtve.es/television/20220315/orgullo-gay-lgbt-drag-queen-origen-diferencias-transformismo-travesti-valeria-vegas/2107203.shtml)

[vegas/2107203.shtml](https://www.rtve.es/television/20220315/orgullo-gay-lgbt-drag-queen-origen-diferencias-transformismo-travesti-valeria-vegas/2107203.shtml) [Kontsulta eguna: 2022/05/25]

Eitb Media (2021/01/19). *Harro gaude, Francis*. [On-line bideo fitxategia], eskuragarri

hemen: [https://www.eitb.eus/eu/nahieran/saioak/ur-handitan/harro-gaude-](https://www.eitb.eus/eu/nahieran/saioak/ur-handitan/harro-gaude-francis/osoa/7399/182660/)

[francis/osoa/7399/182660/](https://www.eitb.eus/eu/nahieran/saioak/ur-handitan/harro-gaude-francis/osoa/7399/182660/) (Kontsulta eguna: 2022/06/10).

Berazaluze, Iñaki (2019). “40 años del asesinato de *Francis*, el travesti cuya muerte

impulsó el movimiento LGTB en Euskadi”. *publico.es*. Ekainaren 28a, eskuragarri

hemen: <https://blogs.publico.es/strambotic/2019/06/asesinato-de-francis/> [Kontsulta

eguna: 2022/06/10]

Salazar, Ayar (2021). “Fue el detonante que amplificó nuestra lucha y reforzó nuestras

ideas”. *diariovasco.com*. Urtarrilaren 21a, eskuragarri hemen:

<https://www.diariovasco.com/oarsoaldea/errenteria/detonante-amplifico-lucha-20210121003105-ntvo.html?ref=https%3A%2F%2Fwww.diariovasco.com%2Foarsoaldea%2Ferrenteria%2Fdetonante-amplifico-lucha-20210121003105-ntvo.html> [Kontsulta eguna: 2022/06/10]

Vitoria, Oihan (2014). “Arnasa eman zien heriotza”. *berria.eus*. Ekainaren 29a, eskuragarri hemen: <https://www.berria.eus/paperekoa/1910/018/001/2014-06-29/arnasa-eman-zien-heriotza.htm> [Kontsulta eguna: 2022/06/10]

Bernués, Mikel (2020). “Una transformación vital: Odei Alkazar y su lado *drag queen* como Sussie Pussie”. *noticiasdenavarra.com*. Otsailaren 12a, eskuragarri hemen: <https://www.noticiasdenavarra.com/navarra/2020/02/12/transformacion-vital-odei-alkazar-lado-2312481.html> [Kontsulta eguna: 2022/02/02]

Crespo, Iñigo (2015). “El Bataclan que encendió la noche de Bilbao: una joya de reservados y travestis”. *elcorreo.com*. Azaroaren 18a, eskuragarri hemen: <https://www.elcorreo.com/bizkaia/sociedad/201511/18/bataclan-bilbao-joya-reservados-20151117195655.html> [Kontsulta eguna: 2022/04/25]

Muñiz, Nora (2019). “Historia del drag: desde Shakespeare hasta RuPaul’s Drag Race”. *plumasatomicas.com*. Ekainaren 18a, eskuragarri hemen: https://plumasatomicas-com.cdn.ampproject.org/v/s/plumasatomicas.com/lgbt/historia-drag-ru-paul/?amp_js_v=a6&_gsa=1&usqp=mq331AQKKAFQArABIACA%3D%3D#ah=16370019771425&referrer=https%3A%2F%2Fwww.google.com&_tf=Argitara-tzailea%3A%20%251%24s&share=https%3A%2F%2Fplumasatomicas.com%2F%2F%2Fhistoria-drag-ru-paul%2F [Kontsulta eguna: 2022/04/08]

L.Garaialde, Olaia (2022). “Feminismoari lotuta dago *drag king-a*”. *berria.eus*. Maiatzaren 19a, eskuragarri hemen: [https://www.berria.eus/paperekoa/1886/032/001/2022-05-19/feminismoari-lotuta-dago-drag-king-a.htm?utm_source=Instagram&utm_medium=Sare sozialak CM](https://www.berria.eus/paperekoa/1886/032/001/2022-05-19/feminismoari-lotuta-dago-drag-king-a.htm?utm_source=Instagram&utm_medium=Sare%20sozialak%20CM) [Kontsulta eguna: 2022/05/19]

Arambarri, María (2019). *Prácticas artísticas queer en Euskal Herria. Los Principios de Feministaldia (2006-2010)*. Gradu Amaierako Lana. Gasteiz: UPV/EHU.

Butler, Judith. (2007). *El género en disputa*. Barcelona: Paidós.

Duque, Carlos (2010). “Judith Butler y la teoría de la performatividad de género”. *Revista de Educación & Pensamiento*. 17, 85-95.

Alvarez, Amaia et al. (2013). *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: Edo!

Preciado, Beatriz (2004). “Género y performance. 3 episodios de un cybermanga feminista queer trans”. *Zehar*, 54, 20-27.

Vegas, Valeria (2020). *Liberate: La cultura LGTBIQ que abrió camino en España*. Madrid: Dos Bigotes.